

PRIBATUTASUN- ETA COOKIE- POLITIKA

GURE PRIBATUTASUN- ETA COOKIE- POLITIKA BEGIRATU BATEAN

1. **NOR GARA?** Gu **Zara España SA** eta **Industria de Diseño Textil SA (Inditex SA)** gara, eta zure datu pertsonalen *tratamenduaren erantzunkide* gara. Horrek esan nahi du zure datuak erabili eta babesteko moduz arduratuko garela. [Ikusi gehiago](#).
2. **ZERTARAKO ERABILTZEN DITUGU ZURE DATUAK?** Zure datuak (online edo zuzenean lortuta), besteak beste, **zure erabiltzaile-erregistroa kudeatzeko**, produktu edo zerbitzuen **erosketak kudeatzeko**, zure kontsultekin laguntzeko edota, hala nahi baduzu, gure komunikazio pertsonalizatuak bidaltzeko erabiliko ditugu. [Ikusi gehiago](#).
3. **ZERGATIK ERABILTZEN DITUGU?** Zure datuak hainbat arrazoi direla eta erabiltzeko eskubidea dugu. Erregistratu eta erosketaren bat egiterakoan edo gure zerbitzu edo funtzionalitateez gozatzerakoan onartzen duzun **kontratua burutzea** da arrazoi nagusia. Hala ere, horretarako eskubidea ematen diguten beste arrazoiak ere badaude, hala nola, zure kontsultekin lagundu ahal izatea edo gure newsletter-ak bidaltzeko ematen diguzun baimena. [Ikusi gehiago](#).
4. **NOREKIN PARTEKATZEN DITUGU ZURE DATUAK?** Zure datuak laguntza edo arreta ematen diguten zerbitzu-hornitzaileekin partekatuko ditugu, hau da, Inditex Taldeko enpresekin zein kanpoko kolaboratzaileekin. [Ikusi gehiago](#).
5. **ZURE ESKUBIDEAK.** Zure datu pertsonaletara sartzeko eta horiek zuzentzeko edo ezabatzeke eskubidea duzu. Kasu batzuetan, beste gauzetarako eskubideak ere badituzu, adibidez, zure datuak erabiltzearen edo horiek garraiatzearen aurka egotea, aurrerago zehazten dugun moduan. [Ikusi gehiago](#).

Gure **Pribatutasun- eta Cookie-politika** osorik irakurtzera gonbidatzen zaitugu zure datu pertsonalak nola erabiliko ditugun eta horiei dagokienez daukazun eskubideak ezagutu ditzazun.

HASI AURRETIK...

- **Pribatutasun- eta Cookie-politika** honetan gure **bezero eta erabiltzaileen datu pertsonalen** erabilerari buruzko informazio garrantzitsu guztia aurkituko duzu, gurekin harremanetan jartzeko era (linean edo zuzenean) zeinahi bada ere.
- Cookieak eta gure bezero eta erabiltzaileen gailuetan instalatuta egon litezkeen bestelako tresnak nola erabiltzen ditugun jakin nahi baduzu, kontsultatu Pribatutasun-politika.
- **Gardenak gara** zure datu pertsonalekin egiten dugunari dagokionez, eta horien erabilerak dakartzan ondorioak edo horiei dagokienez daukazun eskubideak uler ditzazun:
 - Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan **informazio guztia une oro** zure eskura jartzen dugu, nahi duzunean kontsulta dezazun; halaber,
 - zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko **informazioa** ere aurkituko duzu, **gurekin harremanetan edozertarako jartzen zaren bakoitzean**.
- Hona hemen Pribatutasun- eta Cookie-politikan erabiliko ditugun hainbat izen:
 - Gure **Plataformari** buruz hitz egiten dugunean, gurekin harremanetan jartzeko erabiltzen duzun edozein kanal edo bide deritzogu, bai digitalak eta bai zuzenekoak. Hona hemen nagusienak:
 - Gure **webgunea**.
 - Gure **aplikazioa**, hau da, bai zure gailuan instalatutako mugikorrerako aplikazioa bai gure Plataforman erabiltzen ditugunak.
 - Fisikoki, gure **Denda Fisikoren** batean.

1. NOR DA ZURE DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA?

Hona hemen zure datuen tratamenduaren arduradunak:

- **ZARA ESPAÑA SA**, gaur egun Espainian ZARA markako produktuen salmenta zuzentzen duen sozietatea (aurrerantzean, ZARA ESPAÑA):
 - Posta-helbidea: Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143, Arteixo (A Coruña), Espainia.
 - Datuen babeserako ordezkariaren helbide elektronikoa: dataprotection@zara.com
- **INDUSTRIA DE DISEÑO TEXTIL SA (Inditex, SA)**, ZARA ESPAÑAren enpresa nagusitzat funtzionatzen duen sozietate espainiarra (aurrerantzean, INDITEX):
 - Posta-helbidea: Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143, Arteixo (A Coruña), Espainia.
 - Datuen babeserako ordezkariaren helbide elektronikoa: dataprotection@zara.com

Bestela esanda, bai ZARA ESPAÑA bai INDITEX (aurrerantzean, elkarrekin “Gu” edo “Tratamenduaren arduradunak”), gara tratamenduaren **Arduradunak**. Horrek esan nahi du zure datuak erabili eta babesteaz arduratzen garela eta horiek erregulatu ditugula.

2. ZERTARAKO TRATATZEN DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

Une bakoitzean gozatu nahi duzun produktu, zerbitzu edo funtzionalitateen arabera, datu jakin batzuk tratatu beharko ditugu. Normalean, datu horiek honako hauek izango dira kasuaren arabera:

- zure **datu identifikagarriak** (adibidez, zure izena, abizenak, irudia, hizkuntza, gurekin harremanetan jartzen zaren herrialdea, kontaktu datuak, etab.);
- informazio **ekonomikoa eta transakzionala** (adibidez, zure ordainketa-datuak edo txartelaren datuak, erosketa, eskaera eta itzulketei buruzko informazioa, etab.);
- **konexio-, geolokalizazio- eta nabigazio-**datuak (adibidez, kokaleku-datuak, gailuaren identifikazio-zenbakia edo publizitatearen IDa);
- informazio **komertziala** (adibidez, gure newsletter-era harpidetuta bazaude);
- zure **interes eta lehentasunei** buruzko datuak;
- baliteke **datu-kategoria bereziak** behar izatea (adibidez, osasun-datuak, gorabehera jakin batzuk kudeatu behar direnean, hala nola produktu kosmetikoekin zerikusia dutenak).

Gogoan izan Plataformaren funtzionalitate edo zerbitzuren bat erabiltzeko zure datu pertsonalak ematea eskatzen dizugunean, hainbat eremu *derrigorrezkoak* direla adieraziko dizugula, zerbitzua edo funtzionaltasuna erabiltzeko ezinbesteko datuak baitira. Datuak ematen ez badituzu, baliteke ezin izatea erabiltzaile gisa erregistratu edo zerbitzu edo funtzionalitate horiek erabili.

Beste kasu batzuetan, informazioa pasiboki lor dezakezu jarraipen-tresnak erabiltzerakoan, esate baterako nabigatzaileen cookieak edo gure Plataformako edo bidaltzen dizkizugun komunikazioetako bestelako teknologiak. Kasu jakin batzuetan, baliteke hirugarren batek zuri buruzko informazioa guri ematea Plataformaren funtzionalitate edo zerbitzuren bat erabiltzean, adibidez, opari-txartela edo zure helbidera eskaeraren bat bidali badizute.

Kasu horietan, zure datuak funtzionalitate edo zerbitzu horri dagokionez bakarrik tratatuko ditugu, Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan ezarritakoaren arabera.

Gure Plataforma nola erabiltzen duzun arabera, zure datu pertsonalak honako xede hauetarako tratatuko ditugu:

XEDEA	informazio gehiago
1. Plataformaren erabiltzaile gisa zure erregistroa eta identifikazioa kudeatzeko	Gure Plataforman erabiltzaile-erregistroa egin nahi baduzu, zure datuak erabili beharko ditugu horren erabiltzailetzat identifikatzeko eta erabiltzaile gisa izango dituzun funtzionalitate, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko baimena izan dezazun. Zure erabiltzaile-kontua baliogabetzeko, jarri harremanetan gurekin Bezeroentzako Arreta Zerbitzuaren bidez. Zure jardueri buruz jasotzen ditugun datuak, zure erosketak barne eta Plataformako kanal ezberdinen bidez lortuak, zure kontuari lotuta mantenduko dira informazio guztia batera ikusi ahal izateko. Sare sozial baten bidez edo zerbitzu hori (login soziala) gaitzen duen beste kolaboratzaile baten bidez sartzeko edo saioa hasteko aukera duzu saio hasierako pantailan erabilgarri dagoenean, bai saio-hasiera zure kontura lotzeko, bai beste bat erregistratzeko. Kasu horretan, saioa hasteko zure kredentzialak, zure izena eta helbide elektronikoa/telefono-zenbakia (baliteke baimendu behar izatea) sare sozialetik edo laguntzailetik inportatuko dira. Saioa hasteko aukera hau erabiltzean, hirugarren horiek zure profil publikoko informazio osagarria bidali ahalko digute, gizarte sarearen/kolaboratzailearen erabilera-baldintzen arabera, esaterako: zure

XEDEA	informazio gehiago
	izena, sexua, gutxi gorabeherako adina edo profileko argazkia. Erabilera baldintza horiek arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu. Zuk baimena eman ezean, ez ditugu datu gehigarri horiek gordeko. Halaber, funtzionaltasun hau erabiliz gero, gerta daiteke zure jarduerari buruzko informazio jakin bat sare sozialari/kolaboratzaileari ematea. Nolanahi ere, zure pribatutasunaren ezarpena eta kolaboratzaile edo sare sozialaren pribatutasun-politikak berrikustea gomendatzen dizugu, hirugarren horiek zure datuak nola tratatzen dituzten jakiteko. Gure Plataforman identifikatzeko hainbat metodo erabil ditzakezu. Horretarako, baliteke erabiltzen ari zaren kontaktu-datuen jabea zarela egiaztatzen duen prozesuari jarraitu behar izatea.
2. Gurekin Plataforman kontratatu duzun zerbitzu- edo salerosketa-kontratua garatzeko, betetzeko eta burutzeko	Xede honek barne hartzen du zure datuen tratamendua honako hauetarako batez ere: ▪ Zurekin harremanetan jartzeko kontratatutako funtzionalitate, produktu edo zerbitzuekin lotutako eguneraketak edo informazio-komunikazioak jakinarazteko; honek barne hartzen ditu emandako produktu edo zerbitzuei buruzko kalitate-inkestak. ▪ Erosten dituzun produktuen ordainketa kudeatzeko, ordaintzeko era zeinahi bada ere. Adibidez: ▪ Webgune edo aplikazioaren bidez gure produkturen bat erosterakoan etorkizunean erosketak egiteko ordainketa-datuak eta bidalketa-helbidea gordetzeko funtzionalitatea aktibatzea erabakitzen baduzu (funtzionalitate hori erabilgarri egonez gero), adierazitako datuak beharko ditugu funtzionalitate hori aktibatzeke eta garatzeko. Funtzionalitate hori aktibatzeke beharrezkoa den baimenari esker, zure ordainketa-datuak automatikoki beteta agertuko dira etorkizuneko erosketetan; beraz, prozesu berri bakoitzean ez dituzu berriz sartu beharko, eta baliozkoak izango dira eta indarrean egongo dira etorkizunean egiten dituzun erosketetarako. Zure ordainketa-datuak edozein unetan aldatu edo ezabatu ahal izango dituzu ordainketa-informazioari dagokion atalaren bidez, bai webgunean erregistratutako zure erabiltzaile-kontuan eta bai aplikazioaren Nire kontua atalean. ▪ Aurrez aurreko erosketak ordaintzeko aplikazioak duen funtzionalitatea erabilgarri badago eta erabiltzen baduzu, zure datuak erabili beharko ditugu hori aktibatzeke eta horretarako prestatuta dauden denda fisikoetan erosketak egiten has zaitezten. ▪ Beharrezko mekanismoak aktibatzea Plataformaren erabilera okerra prebenitu eta hautemateko, adibidez, erosketa- eta itzulketak-prozesuan zehar, baita zure eta/edo Gure aurkako iruzur potentzialak ere. Eragiketa iruzurrezkoa dela uste badugu edo iruzurrezkoak izan litezkeen ohiz kanpoko jokabideak hautematen baditugu gure funtzionalitate, produktu eta zerbitzuen erabilera, baliteke tratamendu honek transakzioaren blokeoaren edo zure erabiltzaile-kontuaren indargabetzearen moduko ondorioak izatea. ▪ Aldaketa edo itzulketa posibleak kudeatzea erosketa egin ondoren eta jantzien eskuragarritasunari buruzko informazio-eskaerak

XEDEA	informazio gehiago
	edo produktuen erreserbak Plataformaren bidez kudeatzea, aukera horiek une horretan erabilgarri badaude. - Fakturazioa behar bezala egiteko eta Plataformaren bidez egindako erosketen tiket eta fakturak zure eskura jartzeko. Beste funtzionalitate edo zerbitzuen erabilera bermatzea erabilgarri badaude, hala nola, Opari-txartelaren edo Opari-tiketaren erosketa, harrera, kudeaketa eta erabilera, baita Denda Fisikoetan gure bezeroen eskura jartzen dugun wifia erabiltzea erraztea ere. - Inditex Taldearen InWallet aplikazioaren (“InWallet”) erabiltzailea bazara eta Plataforma honetako kontua InWallet kontuarekin lotzea eskatu baduzu, linean egindako zure eskaera eta itzulketekin lotutako informazioa ematea baimentzen diguzu. InWallet aplikazioak jasotzen duen informazioa bere baldintza eta politikei lotuta dagoenez, horiek irakurtzea gomendatzen dizugu. - Denda fisiko batzuetan dauden zerbitzu pertsonalizatu jakin batzuk eskaini ahal izateko (hala nola, artikuluen bilatzailea, probagelen erreserbatzea, etab.), zure kokapen- eta harreman-datuak tratatu behar ditugu. - Zara Pre-Owned dagokionez (erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuei salgaiak erosteko, artikulua konpontzeko edo emateko aukera ematen duena), zure datuak erabiltzen ditugu Zara Reselle plataforman sartuta dauden zure produktuei lotutako zure datuak argitaratzeko, gaitutako aukera desberdinen salgaiak, transakzioak eta kobrantza kudeatzeko, bai eta beste erabiltzaile batzuek egin edo jaso ditzakezun aipamenak gaitzeko ere, plataforman islatuta geratuko direnak. - Azkenik, zure datuak tratatu ditzakegu aplikagarri izan daitekeen legezko edozein betebeharrak betetzeko.
3. Bezeroentzako arreta zerbitzuaren kanalen bidez egiten dituzun eskaerekin laguntzeko	Zure eskaera kudeatu edo burutzeko benetan beharrezkoak diren datu pertsonalak besterik ez ditugu tratatzen. Telefonoa erabiltzen baduzu, baliteke deia grabatzea zure eskaerarekin lagundu ahal izateko eta horren kalitatea bermatzeko. Erabilgarri badago eta Bezeroentzako arreta zerbitzuarekin WhatsApp bidez harremanetan jartzen bazara, zure telefono-zenbakia WhatsApp Inc.-i emango diogu (AEBetan kokatutako sozietatea), zerbitzu horren erabiltzailea zarela egiaztatzeko. WhatsApp-eko pribatutasun-ezarpenak berrestea eta pribatutasun-politika irakurtzea gomendatzen dizugu, bere zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileen datu pertsonalak WhatsApp-ek nola erabiltzen dituen inguruan informazio zehatzagoa lortzeko. Erabilgarri badago eta Bezeroentzako arreta zerbitzuarekin sare sozial edo gure kolaboratzaile baten bidez harremanetan jartzen bazara, zure datu batzuk sare sozialaren edo gure kolaboratzailearen kontutik inportatuko dira, esate baterako, izena edo erabiltzaile-izena. Bestalde, kontuan izan zerbitzu

XEDEA	informazio gehiago
	honetan ematen dituzun datuak zure sare sozialerako edo gure kolaboratzailerako eskuragarri egongo direla, eta haien pribatutasun-politikei lotuta egongo direla. Hori dela eta, sare sozialeko edo kolaboratzailearen webguneko zure pribatutasun-ezarpenak berrestea eta pribatutasun-politikak irakurtzea gomendatzen dizugu, haien zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileen datu pertsonalak nola erabiltzen dituzten inguruan informazio zehatzagoa lortzeko.
4. Marketin xedeetarako	Xede honek barne hartzen du zure datuen tratamendua honako hauetarako batez ere: ▪ Eskaintzen dizkizugun zerbitzuak pertsonalizatzea eta Plataforman gurekin daukazun harremanen eta zure erabiltzaile-profilaren analisiaren araberrako gomendioak egitea (adibidez, zure erosketa-eta nabigazio-historiaren arabera). ▪ Gure Newsletter-era harpidetuz gero, zure datuak tratatuko ditugu harpidetza kudeatzeko, gure produktuei buruzko informazio pertsonalizatuaren bidalketa edo hainbat bideren bidez egindakoak barne (hala nola, posta elektronikoko edo SMS bidez). Bestalde, informazio hori push jakinarazpenen bidez bidali ahal izango dizugu, horiek gailuan aktibatuta badituzu. ▪ Hori dela eta, kontuan izan datuak tratatzeko zure erabiltzaile- edo bezero-profilaren analisia egitea beharrezkoa dela, horrela zure lehentasunak zehazteko eta zure estiloarekin bat datozen produktu eta zerbitzuak ezagutzeko, zuretzat interesgarria den informazioa helarazteko. Adibidez, zure erosketa- eta nabigazio-historia kontuan hartuz (hau da, klikatu dituzun jantzien arabera), zuretzat interesgarriak izan daitezkeen produktuak iradoki ahal izango dizkizugu eta, erregistratutako erabiltzailea bazara, "orgatxo berreskuratzeko" aukera emango dizugu. ▪ Gogoan izan Newsletter-an baja eman dezakezula edozein unetan ordainketarik egin gabe Plataformaren "Newsletter" atalaren edota komunikazio guztietan agertzen diren adierazpenen bidez. Push jakinarazpenak jaso nahi ez badituzu, desaktibatu aukera hori zure gailuan. ▪ Webguneetan edo aplikazioetan, esate baterako, sare sozialak, nabigatzerakoan ikusi ahal izango duzun Internet-publizitatea erakustea. Baliteke publizitate hori ausaz agertzea, baina beste batzuetan zure erosketa-historial, lehentasun eta nabigazioarekin zerikusia duen publizitatea izan daiteke. ▪ Sare sozialen erabiltzailea bazara, baliteke informazio jakinen bat gurekin elkarlanean daudenei eman behar izatea gure markako publizitatea erakuts diezazuten eta, orokorrean, zuri edo bestelako erabiltzaileei publizitatea eskaintzea zure sare sozial horietako profila kontuan izanda. Zure datuen erabilerari eta sare sozial horietako publizitatearen funtzionamenduari buruzko informazioa nahi izanez gero, irakurri erabiltzen dituzun sare sozialen pribatutasun-informazioa.

XEDEA	informazio gehiago
	▪ Kolaboratzaileen plataforma batzuetan erabiltzaileei erakusten diegun publizitatearen neurketa- eta segmentazio-analisiak egiteko ere erabiltzen ditugu zure datuak. Horretarako, elkarlanean dihardugu zerbitzu horiek erabiltzeko beharrezkoa den teknologia eskaintzen diguten hirugarren horiekin (adibidez, cookie, pixel, SDK bidez). Nahiz eta kolaboratzaile horiei datu pertsonal identifikatzaileak ez eman, identifikatzaile bakarren bat ematen diegu (esate baterako, gailuari lotutako publizitate-identifikatzailea, cookieren baten identifikatzailea, etab.). Hori buruzko informazio gehiago nahi baduzu, irakurri gure Cookie-politika. Orobat, zure gailuan publizitate-identifikatzailea berrezar dezakezu, edo publizitatearen pertsonalizazioa desgaitu, zure lehentasunak gailuko ezarpenetan aldatuz. ▪ Datuen aberastea: Zure datuak hainbat iturritatik lortzean, egoera jakin batzuetan konbinatu ahal izango ditugu zure behar eta lehentasunak hobeto ulertzeko gure produktu eta zerbitzuei dagokienez (analisi-xedeak, erabilera-profilen sorkuntza, marketin-ikerketak, kalitate-inkestak eta gure bezeroekiko harremana hobetzea barne). Adibidez, egin dezakegun informazioaren konbinazioari buruz ari gara, erregistratutako kontua baduzu eta zure kontuari lotutako helbide elektronikoko edo telefono-zenbaki berarekin gonbidatu gisa erosketak egiten badituzu; edo automatikoki jasotako informazioari buruz ari gara (hala nola, IP helbideak, MACak edo metadatuak), Plataforman edo gure edozein dendatan izan duzun jardueraren bidez emandako informazioarekin lotu dezakeguna (besteak beste, denda fisikoetan edo online dendan egindako erosketei lotutako informazioa, edo zure lehentasunak). ▪ Sustapen-ekintzak burutzea (esate baterako, lehiaketen garapenerako edo gorde dituzun artikuluen zerrenda adierazitako helbide elektronikora bidali ahal izateko). Sustapen-ekintzetan parte hartuz gero, baimena ematen diguzu emandako datuak sustapen-ekintza bakoitzaren arabera tratatzeko eta horiek sare sozialen bidez edo Plataforma beran partekatzeko. Parte hartzen duzun sustapen-ekintza bakoitzean legezko oinarriak izango dituzu eskuragarri; bertan zure datuen tratamenduari buruzko informazio zehatzagoa emango dizugu. ▪ Plataforman edo sare sozialetan dauzkagun kanalen bidez publikoki partekatu dituzun argazki edo irudiak barreiatzea, baldin eta horretarako baimena ematen baduzu.
5. Adimen artifizialeko (AA) funtzioak zure eskura jartzeko	Gure morroia erabiltzea erabakitzen baduzu, behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak erabiliko ditugu, baita morroiari ematen dizkiozunak ere (testua, irudiak edo ahotza), zure eskaerei modu pertsonalizatuan erantzuteko eta zure nabigazio- eta erosketa-esperientzia hobetzeko. Bezeraentzako Arreta Zerbitzuarentzat galderaren bat baduzu, zure datuak eskaerari erantzuteko tratatuko ditugu. Try On funtzionalitatea erabiltzea aukeratzen baduzu, bidaltzen dizkiguzun irudiak tratatu egingo ditugu avatar bat sortzeko eta zenbait produktu nola geratuko liratekeen erakusten duen simulazio bat erakusteko.

XEDEA	informazio gehiago
6. Erabilera- eta kalitate-analisia gure zerbitzuak hobetzeko	Plataforma erabiltzea onartzen baduzu, zure datuak tratatuko ditugula jakinarazten dizugu xede analitiko eta estatistikoetarako, hau da, erabiltzaileak gure Plataforman nola erabiltzen duten ulertzeko eta beste webgune edo aplikaziotan burutu ditzakegun jarduerekin nola eragiten duten ulertzeko, hobekuntzak egite aldera. Bestalde, batzuetan kalitate-jarduerak eta -inkestak gauzatzen ditugu gure bezero eta erabiltzaileen asetze-maila ezagutzeko eta hobetu ditzakegun gauzak identifikatzeko.

3. ZEIN DA ZURE DATUEN TRATAMENDURAKO LEGITIMAZIOA?

Zure datuak tratatzea ahalbidetzen digun legezko oinarria tratamenduaren xedearen araberakoa da ere, honako taula honetan adierazten den moduan:

Xedea	Legitimazioa
1. Plataformaren erabiltzaile gisa zure erregistroa eta identifikazioa kudeatzea	Zure datuen tratamendua beharrezkoa da webgunearen eta aplikazioaren erabilera erregulatzen duten baldintzak burutzeko. Hau da, Plataformaren erabiltzailearen erregistroa osatzeko, zure datu pertsonalak tratatu behar ditugu, bestela, ezingo genuke zure erregistroa kudeatu. Gainera, baliteke Brick-and-Mortar dendetan erregistratzeko aukera izatea, onura pertsonalizatuak lortzeko aukera emango dizun profila sortuz (adibidez, txartel elektroniko guztiak batera izatea). Horretarako, zure baimenean oinarrituta tratatuko ditugu zure datuak. Halaber, beste lurralde batera bidaiatzen duzun bitartean Plataforma erabiltzea aukeratzen baduzu, baliteke zure datu pertsonalak lurralde horretan markaren enpresarekin partekatu behar izatea, zure kontuaren erabilera errazteko. Ezaugarri honetarako, zure datuak zure baimenean oinarrituta prozesatzen ditugu. Zure erosketak eta Plataformaren kanal ezberdinen bidez zure jarduerari buruzko datuak zure kontuarekin lotzeko interes legitimoa dugula uste dugu.

Xedea	Legitimazioa
2. Zerbitzu- edo salerosketa-kontratuaren garapena, betetzea eta burutzea	Zurekin lotzen gaituen zerbitzu- edo salerosketa-kontratua burutzeko, zure datuak tratatu behar ditugu. Hor sartzen dira Brick-and-Mortar dendetan egindako erosketen tiket elektronikoak emateko tratatzen ditugun harremanetarako datuak, tiket horiekin eragiketak egitea zuretzat errazagoa izan dadin. Baliteke erosketa prozesuari lotutako hainbat datuen tratamenduk zuk eskatu edo baimena eman ondoren bakarrik aktibatzea. Hori da, adibidez, etorkizuneko erosketetarako gordetzen diren ordainketa-datuen kasua, baita aplikazioaren Wallet atalaren bidez ordainagiriak eskaneatzeko edo produktuen eskuragarritasunaz zu informatzeko ere (baldin eta funtzionalitate hori erabilgarri badago). Kasu horietan, zure datuak tratatzeko oinarria zeure baimena da. Bestalde, baimena ematen diguzunean kokapen-datuak tratatuko ditugu gure denda fisikoren bat bisitatzerakoan, aplikazioaren bidez berariazko zerbitzuak eskaintzeko. Plataformaren erabileran iruzur posibleak edo erabilira maltzurak detektatu eta prebenitzeko beharrezko egiaztapenak egiteko legezko interesa dugula irizten dugu. Egiaztapen horiek egiten dira, besteak beste, erosketa edo itzulketak bat egiten duzunean edo Plataforman sartuta dauden hainbat zerbitzuren eraginkortasuna aztertzeko helburuarekin, esaterako, Neurriak gomendatzeko tresna. Datu horien tratamendua alderdi guztientzat positiboa dela uste dugu: zuretzat, hirugarrenen iruzurren kontra babestuko zaituzten neurriak ezartzea ahalbidetzen digulako; Guretzat, Plataforma gaizki erabiltzea saihesten laguntzen digulako; gure bezero guztientzat eta gizarte osoarentzat, iruzurreko jarduerak murriztu eta detektatzea ahalbidetzen duelako, gizartearen interesak babesteko. Aurrekoa gorabehera,Zara Pre-Owned, programaren kasuan, beste kide batzuen aipamenak uzten badituzu, jasotzeko eta erabiltzeko legezko oinarria ematen diguzun baimena da.Bestalde, beste kide batzuen aipamenak jasotzen dituzunean, informazio hori jaso eta erabiliko dugu, gure interes legitimoa eta Zararen beste erabiltzaile batzuen oinarri hartuta, zerbitzu horren erabiltzaileentzat zerbitzu fidagarri bat sortzeko.
3. Bezeroentzako arreta zerbitzua	Kontaktu bide ezberdinen bidez egindako eskaera edo galderekin laguntzeko interes legitimoa dugula uste dugu. Datu horien tratamendua zuretzat ere onuragarria dela uste dugu, behar bezala laguntzea eta egiten dizkizugun galderei erantzutea ahalbidetzen baitigu. Hain zuzen gurekin harremanetan jartzen zarenean Plataformaren bidez erosi duzun eskaera/zerbitzuarekin lotutako gertaerak kudeatzeko, datu horiek tratatzea ezinbestekoa da salerosketa-kontratua burutu ahal izateko. Zure kontsulta beherago adierazten ditugun eskubideen egikaritzearekin edo gure produktu edo zerbitzuei buruzko erreklamazioekin lotuta badago, zure datuak tratatu beharko ditugu legezko betebeharrak bete ahal izateko. Kasu batzuetan, produktuen erreklamazioei dagokienez, baliteke datuak tratatzeko beharrezkoa izatea osasun publikoan interes publikoa bermatzea.

Xedea	Legitimazioa
4. Marketina	Zure datuak marketin-xedeekin tratatzeko legezko oinarria ematen diguzun baimena da, esate baterako: informazio pertsonalizatua hainbat bideren bidez jasotzea onartzen duzunean, zure gailuan push jakinarazpenak jasotzea onartzean, cookieen edo zure gailuaren pribatutasunaren konfigurazioaren bidez baimena ematen duzunean, edo legezko oinarriak onartzen dituzunean sustapen-ekintza batean parte hartzeko edo Plataforman edo sare sozialetan ditugun kanaletan argazkiak argitaratzeko. Zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko edo informazio pertsonalizatua erakusteko, bai gure Plataforman eta bai hirugarrenen plataformetan, baita datuen aberastea burutzeko ere, interes legitimoa dugula uste dugu zuri buruzko informazioarekin (hala nola, zure nabigazioa, lehentasunak edo erosketa-historia) eta eman dizkiguzun datu pertsonalekin (adin-tartea edo hizkuntza) zure profila aztertzeko. Halaber, datu horien tratamendua zuretzat onuragarria dela uste dugu, horri esker erabiltzaile-esperientzia hobetu eta zure lehentasunekin lotutako informazioa eskuratu ahalko baituzu.
5. Adimen artifizialeko (AA) funtzioak zure eskura jartzeko	Uste dugu interes legitimoa dugula morroia tresnari ematen dizkiozun datuak tratatzeko, bere funtzioetarako sarbidea errazteko (hala nola bilaketa-motorra, bezeroarentzako arreta-zerbitzua eta Try On funtzionalitatea) eta zure erabiltzaile-esperientzia optimizatzeko. Uste dugu tratamendu hau zuretzat onuragarria izan daitekeela, zure beharretara egokitutako zerbitzu eraginkorragoa eta kalitate handiagokoa eskaintzeko aukera emango baitigu.
6. Erabilera- eta kalitate-analisia	Plataformaren erabilera eta erabiltzaileen asetze-maila aztertzeko interes legitimoa dugula uste dugu, eta datu horien tratamendua zuretzat ere onuragarria dela uste dugu, erabiltzaile-esperientzia eta zerbitzuen kalitatea hobetzea ahalbidetzen baitigu.

4. ZENBAT DENBORAZ GORDEKO DITUGU ZURE DATUAK?

Zure datuak **gordetzeko epea** tratamendu-xedeen arabera izango da, jarraian adierazten dugun moduan:

Xedea	Gordetzeko epea
1. Plataformaren erabiltzaile gisa zure erregistroa eta identifikazioa kudeatzea	Zure datuak erabiltzaile erregistratua zaren bitartean tratatuko ditugu (hau da, zure online kontua edo dendako profila ezabatzea erabakitzen duzun arte).

Xedea	Gordetzeko epea
2. Zerbitzu- edo salerosketa-kontratuaren garapena, betetzea eta burutzea	Zure datuak produktu edo zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoa den epean tratatuko ditugu; horrek barne hartzen ditu produktu edo zerbitzu zehatzaren erosketarekin lotutako itzulketa, kexa edo erreklamazio posibleak. Kasu batzuetan, datuak nahi duzun unera arte besterik ez ditugu tratatuko; hori da etorkizuneko erosketak egiteko gordetako ordainketa-datuen kasua (baldin eta funtzionalitate hori erabilgarri badago). Zara Pre-Owned programaren kasuan, zure izenari lotuta argitaratzen dituzun salgaiak plataforman egongo dira argitaratuta egokitzen jotzen duzun denboran, salgaia saldu arte, edo, hala badagokio, zehaztapen eta baldintzetan ezarritakoaren arabera. Beste kide batzuen iritzia jaso edo uzten badituzu, zure datu pertsonalak bildu eta erabiliko ditugu, Zarako zure kontua desaktibatu arte edo zure kontua 5 urtez geldirik egon arte.
3. Bezeroentzako arreta zerbitzua	Zure datuak zure eskaerarekin laguntzeko beharrezkoa den denboran zehar tratatuko ditugu, bai eta kasu bakoitzean aplika daitezkeen erregelamenduetan ezarritako denboran ere.
4. Marketina	Zure datuak baja egiten duzun arte edo newsletter-a deuseztatzen duzun arte tratatuko ditugu. Orobat, publizitate pertsonalizatua erakutsiko dizugu cookieen konfigurazioa aldatzen duzun arte gailuz edo nabigatzailez aldatzen duzun arte, horrek baimena ezeztatuko baitu. Sustapen-ekintzetan parte hartuz gero, zure datuak sei (6) hilabetez gordeko ditugu, jarduera amaitzen denetik hasita.
5. Adimen artifizialeko (AA) funtzioak zure eskura jartzeko	Morroiari eman dizkiozun datu pertsonalak eskatutako zerbitzua emateko behar den denboran baino ez ditugu tratatuko, ondoren adierazten den bezala. Produktuak bilatzeko motorraren kasuan, datu pertsonalak saio aktiboak irauten duen bitartean bakarrik gordeko dira, eta ondoren automatikoki ezabatuko dira. Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan kontsultak egiteko, zure datuak eskaera bideratzeko behar den denboran gordeko ditugu. Try On funtzionalitatearen kasuan, kargatzen dituzun irudiak sorkuntza-prozesuan zure avatarra sortzeko bakarrik tratatuko dira, eta automatikoki ezabatuko dira avatarra sortu ondoren. Produktuak bistaratzeko sortutako avatarra honela biltegitratuko da: (i) Erregistratutako erabiltzaileentzat: Zara erabiltzaile-kontua baduzu, avatarra gehienez ere urtebetez gordeko dugu zure kontuan. Epe hori igarotakoan, zure avatarra automatikoki ezabatuko da, baldin eta beste urtebetez gordetzeko baimena eman ez baduzu; edo, edozein kasutan, zure kontutik ezabatzea erabakitzen baduzu. (ii) Erregistratu gabeko erabiltzaileentzat: Zara konturik ez baduzu, zure avatarra 24 orduz bakarrik gordeko da. Epe hori igarotakoan, avatarra automatikoki ezabatuko da eta beste bat sortu beharko duzu gure zerbitzua erabiltzen jarraitzeko.

Xedea	Gordetzeko epea
6. Erabilera- eta kalitate-analisia	Zure datuak tratatuko ditugu jarduera edo kalitate-inkestaren bat burutzen dugun denboran zehar, edo zure nabigazio-datuak anonimo bihurtzen ditugun arte.

Dagokion helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran tratatuko ditugu datuak; hala ere, ondoren ere gordeko ditugu, behar bezala gordeta eta babestuta, unean uneko indarreko araudia betetzeko tratamendutik eratorritako erantzukizunak sor litezkeen epean. Kasu bakoitzeko jarduera posibleak preskribatu ondoren, datu pertsonalak ezabatuko ditugu.

5. ZURE DATUAK HIRUGARRENEKIN PARTEKATUKO DITUGU?

Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan adierazitako xedeak betetzeko, beharrezkoa da zure datu pertsonalak partekatzea eskaintzen dizkizugun zerbitzuetan laguntza ematen diguten **Inditex Taldeko entitateekin** eta **hirugarrenekin**, hau da:

- **finantza**-erakundeak,
- **iruzurrak detektatu eta prebenitzeko** erakundeak,
- **zerbitzu teknologiko eta analitiko** hornitzaileak, horietako batzuek morroia eta Try On bezalako funtzioetarako euskarria eskaintzen dute.
- **logistika-, garraio- eta entrega**-zerbitzuen hornitzaile eta kolaboratzaileak edo horien establezimendu erlazionatuak,
- bezeroentzako arreta zerbitzuarekin lotutako zerbitzu-hornitzaileak.
- **marketin eta publizitatearekin** erlazionatutako zerbitzu-hornitzaileak, esate baterako, publizitate-agentziak, publizitate-bazkideak edo kasu batzuetan elkarrekin kontrolatzaile lanetan jardun dezaketen sare sozialak.
- Partikularrak (Zara Resell funtzioa erabiliz gero).
- Agintari publikoak (adibidez, beharrezkoa bada Zara Resell plataformari lotutako informazio-betebeharrak betetzeko).

Zerbitzua efizienteago egiteko, zerbitzuak ematen dituzten aipatutako horietako batzuk Europako Gune Ekonomikotik kanpo daude, eta ez dute Europar Batasunekoaren parekoa den datu-babesa ematen; hau da, Estatu Batuak. Jakinarazten dizugu kasu horietan **beharrezko bermeekin eskualdatzen ditugula**, datuak transferitzeko nazioarteko tresna egokienak erabiliz, hala nola, Kontratu Klausula Tipoak eta dagokion beste edozein neurri osagarri. Horren edukia esteka honetan kontsulta dezakezu: https://commission.europa.eu/law/law-topic/data-protection/international-dimension-data-protection/standard-contractual-clauses-scc_en.

Beste lurralde batera bidaiatzen duzun bitartean Plataforma erabiltzea erabakitzen baduzu, baliteke zure datu pertsonalak leku horretan lan egiten duen markaren enpresarekin partekatu behar izatea. Horri esker, zure erabiltzaile-kontua sortu edo sinkronizatu ahal izango dugu, eta, hala, erosketak errazago egin ahal izango dituzu helmuga horretan. Jakinarazpen honen oinarri legala zuk ematen diguzun baimena da, Pribatutasun Politika honen 3. atalean azaltzen den bezala.

Gure negozioa osorik edo horren parte bat beste enpresa bati salduko bagenio, hori Inditex Taldekoa izan edo ez, edo enpresaren berrantolaketa beten ondorioz beste edozein jarduera komertzial burutuko bagenu, zure datu

pertsonalak negozio edo aktiboen hartzaile potentzialarekin partekatu ahalko genituzke. Salmenta edo transferentzia hori gertatuko balitz, ahal dugun guztia egingo genuke onuradunak zuk emandako informazio pertsonala gure Pribatutasun-politikaren arabera tratatzeko. Kasu horretan, gure enpresako egituraren berrantolaketa oinarrituta interes legitimoa dugula uste dugu.

Bestalde, Plataforma merkatu ezberdinetan erabili nahi baduzu (hau da, erregistratutako erabiltzaile-kontuak helbide elektronikoa berarekin merkatu ezberdinetan sortuz), baliteke zure kontu edo jarduerekin lotutako informazioa merkatu horietan jarduten duten markaren enpresekin partekatu edo transferitu behar izatea, horiek 2. atalean adierazitako edozein helburu erdiesteko zuzenean erlazionatuta dauden heinean. Uste dugu hori beharrezkoa dela gure elkarrekiko interes eta lehentasunak asetzeko.

6. ZEIN DIRA ZURE ESKUBIDEAK DATUAK EMATEN DIZKIGUZUNEAN?

Konpromisoa hartzen dugu zure datu pertsonalen konfidentziasuna errespetatzeko eta **zure eskubideak erabili ahal izatea bermatzeko**. Inolako **kosturik gabe** erabil ditzakezu; horretarako, bidali eskaera bat [esteka](#) honen bidez. Kanal hori erabiltzean arazoren bat baduzu, mezu elektronikoa bat idatz diezazukezu dokumentu honen 1. atalean ageri den harremanetarako helbide elektronikora, zure eskaeraren arrazoia zehaztuz eta erabili nahi duzun eskubidea adieraziz.

Bestalde, zure eskubideak erabiltzeko eta pribatutasun-lehentasunak konfiguratzeko aukera eman diezazukegu gure plataformako zerbitzuren bat erabiltzean.

Zure identitatea egiaztatzen duen dokumentuaren kopia eska diezazukegu, zu identifikatzeko beharrezkoa dela uste badugu.

Bereziki, zure datuak tratatzen ditugun xede edo legezko oinarria zeinahi dela ere, eskubide hauek dituzu:

- Zuri buruz dauzkagun datuetan **sartzea** eskatzea. Gogoan izan Plataforma erregistratutako erabiltzailea bazara, informazio hori zure datu pertsonalei dagokien atalean ere kontsulta dezakezula.
- Dagoeneko dauzkagun datuak **zuzentzea** eskatzea. Gogoan izan Plataforma erregistratutako erabiltzailea bazara, zure datu pertsonalei dagokien atalean sar zaitezkeela datu pertsonalak aldatu edo eguneratzeko. Dena dela, kontuan izan zure datu pertsonalak edozein bideren bidez aktiboki ematean, **benetakoa eta zehatzak** direla bermatzen duzula, eta horietan edozein aldaketa egonez gero horri buruz jakinarazteko konpromisoa hartzen duzula. Plataformari, plataformaren arduradunari edo beste edozein hirugarreni erregistro-inprimaketan informazio okerra, zehaztugabea edo osatugabea jakinarazteagatik eragindako galera edo kalte oro erabiltzailearen erantzukizuneko izango da. Gogoan izan oro har zeure datu pertsonalak soilik eman beharko dizkiguzula, eta ez hirugarrenenak, honako Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan baimentzen den kasuetan izan ezik.
- Zure datuak **ezabatzea** eskatzea lehen aipatutako xedea betetzeko dagoeneko beharrezkoak ez badira, edo jada horiek tratatzeko legitimaziorik ez badugu.
- Zure datuen **tratamendua mugatzea** eskatzea; horrek esan nahi du zenbait kasutan datuen tratamendua denbora batez gelditzea eskatzeko aukera duzula edo, behar baduzu, beharrezkoa den denbora baino gehiagoz horiek gordetzea eskatzeko aukera duzula.

Zure datuak edozein xederako tratatzeko **baimena** eman badiguzu, baimen hori **edozein unetan kentzeko eskubidea ere baduzu**. Baimena kentzeko zenbait era 2. atalean adierazita daude; bertan zure datuak zertarako tratatzen ditugun azaltzen dugu.

Publizitatea ikusteko hirugarrenei informazioa bidali nahi ez badiezu, hainbat era dituzu eskura, esate baterako, gailuan, nabigatzailean edo cookieen konfigurazioan lehentasunak aldatzea, pribatutasun-politika eta profila duzun sare sozialen konfigurazioa berrestea edo posta elektronikoa lehen aipatutako helbidera bidaltzea eskaerarekin. .

Datuen tratamendurako gure legitimazioa zure **baimena** edo **kontratuaren burutzea** denean, 3. atalean azaldutakoaren arabera, **zure datu pertsonalen eramangarritasuna** eskatzeko eskubidea ere izango duzu. Horrek esan nahi du eman dizkiguzun datu pertsonalak jasotzeko eskubidea izango duzula, ohiko formatu egituratuan eta makina batek irakurtzeko moduan, beste erakunde bati zuzenean transmititu ahal izateko, hori teknikoki posible bada.

Bestalde, zure datuen tratamendua gure **interes legítimoan** oinarrituta dagoenean, datuen tratamenduaren **aurka egoteko** eskubidea ere izango duzu.

Azkenik, jakinarazten dizugu **erreklamazioa aurkezteko** eskubidea duzula datuen babesari dagokion kontrol-agintaritzaren aurrean, hots, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (<https://www.agpd.es/portalwebAGPD/index-ides-idphp.php>).

7. ZER GERTATUKO DA HIRUGARRENEN DATUAK EMAN BADIZKUGUZU, EDO HIRUGARREN BATEK ZURE DATUAK EMAN BADIZKIGU?

Erabiltzaile edo bezero zaren aldetik eman dizkiguzun hirugarrenen datu pertsonalak tratatuko dituzten funtzionalitate edo zerbitzuak eskaintzen ditugu, hala nola, Opari-txartelaren aktibazioa eta bidalketa edo Opari-tiketaren eskaeraren kudeaketa (funtzionalitate horiek erabilgarri badaude), edo hirugarren bati eskaera bat gure dendaren batean edo establezimendu erlazionaturen batean jasotzeko baimena ematen diozunean. Hirugarrenen datu pertsonalak ematen badizkiguzu, edo zure izenean dagoen bidalketa bat hirugarren batek jasotzeko bere datuak behar baditugu, datu pertsonalen tratamenduaren xedeei eta horiek tratatzeko erari buruz jakinarazi diezula bermatzen duzu.

Hirugarren batek zure datuak eman badizkigu edo zuk zeuk eman badizkiguzu gure erabiltzaile batek eskatutako funtzionalitate edo zerbitzu baten ondorioz, horiek kasu bakoitzean garatzen ari den funtzionalitate edo zerbitzua kudeatzeko erabiliko ditugu, Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan adierazitako xedeen barruan; normalean, horien esteka gure komunikazioetan aurkituko duzu.

8. ALDAKETAK PRIBATUTASUN- ETA COOKIE-POLITIKAN

Baliteke Pribatutasun- eta Cookie-politika honetako informazioa aldatzea, egoki deritzogunean. Hori eginez gero, Plataformaren bidez jakinaraziko dizugu hainbat bidetatik (esate baterako, iragarki-banda, mezu zabalgari edo push jakinarazpen baten bidez), edo baliteke posta elektronikoz ere jakinaraztea aldaketak pribatutasunean eragin handia duenean. Horrela, aldaketak ikusi eta zenbatesteko eta, hala badagokio, zerbitzu edo funtzionalitatearen batean baja emateko edo horren aurka egiteko. Edozein kasutan, noizean behin Pribatutasun- eta Cookie-politika berrikustea gomendatzen dizugu, aldaketa txikiak edo hobekuntza interaktiboak egon baitaitezke, webgunean eta aplikazioan eskuragarri egongo baita beti.

9. COOKIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Cookieak eta bestelako tresnak erabiltzen ditugu Plataforman nabigatzea errazteko, Gurekin harremanetan nola jartzen zaren jakiteko eta, zenbait kasutan, zure nabigazio-ohituren araberrako publizitatea erakutsi ahal izateko. Irakurri gure Cookie politika erabiltzen ditugun cookieak eta bestelako tresnak eta horien xedea hobeto ezagutzeko, baita zure lehentasunak nola kudeatu ditzakezun jakiteko eta bestelako informazio erabilgarria irakurtzeko ere.

Cookie-politika

HASI AURRETIK...

Cookie politika honetan, gure bezero eta erabiltzaileen terminalen instalatzen diren cookie eta antzeko gailuen erabilerari buruzko informazioa aurkituko duzu. Batzuetan, cookieak erabiltzea datu pertsonalen tratamenduari lotuta egon daiteke; beraz, gure plataforman eskuragarri dagoen pribatutasun-politika kontsultatzea gomendatzen dizugu, gure bezero eta erabiltzaileen datu pertsonalak nola erabiltzen ditugun jakiteko, zure eskubideak nola erabil ditzakezun jakiteko, edo gure plataformari buruz erabiltzen dugun terminologia (Web, App edo Denda Fisikoak) ezagutzeko.

COOKIEI BURUZKO INFORMAZIOA

1. Zer da cookie bat?

Cookie bat testu-fitxategi txiki bat da, eta webgune, aplikazio edo beste plataforma batek zure ordenagailuan, tabletan, telefono adimendunean edo antzeko beste edozein gailutan biltegitzen du, nabigazioari edo erabilerari buruzko informazioarekin, zure gailua identifikatzen duen etiketa izango balitz bezala. Cookieak beharrezkoak dira, adibidez, nabigazioa errazteko eta erabiltzaileek plataformekin nola elkarreragiten duten jakiteko, eta, hala, hobetu ahal izateko. Oso erabilgarriak dira, halaber, erabiltzailearen lehentasunen arabera publikitatea erakusteko, baita aurrerago zehazten diren beste helburu batzuetarako ere. Cookieek ez dute zure ordenagailua edo gailua kaltetzen.

“Cookie”-i buruz ari garenean, zure gailuan informazioa instalatzeko eta/edo jasotzeko antzeko beste teknologia batzuei buruz ari gara (adibidez, flash cookieak, web beacon edo bugs, pixel delakoak, HTML5 (biltegitatze lokalekoak), eta SDK teknologia app-formatuetarako. Halaber, “Cookie” terminoa fingerprinting tekniken erabilerari ere aplikatzen zaio, hau da, zure gailua identifikatzen laguntzen diguten informazio-konbinazioko teknikei. Batzuetan, teknologia horiek cookieekin batera funtzionatzen dute informazioa bildu eta gordetzeko, bai gure Plataforman zenbait funtzionalitate edo zerbitzu emateko, bai hirugarrenen plataformetan publikitatea erakusteko, zure nabigazioa kontuan hartuta.

Hau da cookieen azalpen orokorra, informatzeko soilik. Berariaz erabiltzen ditugun cookieak gure Plataformako cookieen konfigurazio-panelean zehazten dira.

2. Zer cookie mota daude?

Mesedez, berrikusi atal hau, online erabil daitezkeen cookie motaren ikuspegi orokorra ematen baitu.

Cookieen jabearen arabera, honela sailka daitezke:

- a. Cookie propioak: Erabiltzailearen ordenagailura edo gailura bidaltzen dira editoreak berak kudeatzen duen ekipo edo domeinu batetik, eta bertatik eskaintzen da erabiltzaileak eskatutako plataforma edo zerbitzua.
- b. Hirugarrenen cookieak: Erabiltzailearen ordenagailura edo gailura bidaltzen dira editoreak kudeatzen ez duen ekipo edo domeinu batetik, baizik eta cookieen bidez lortutako datuak tratatzen dituen beste entitate batetik.

Cookiearen helburuaren arabera, honela sailka daitezke:

- a. Ezinbesteko cookieak (teknikoak): Erabiltzaileari webgune, plataforma edo aplikazio batean nabigatzeko eta bertan dauden aukera edo zerbitzuak erabiltzeko aukera ematen diote. Hala nola, trafikoa kontrolatzea, datuak edo saioa identifikatzea, sarbide mugatuko atal edo edukietara sartzeko, eskaera bat osatzen duten elementuak gogoratzea, eskaera bat erosteko prozesua osatzea, ordainketa kudeatzea, zerbitzuaren segurtasunari lotutako iruzurra kontrolatzea, nabigatzean segurtasun-elementuak erabiltzea, ekitaldi batean izena emateko edo parte hartzeko eskaria egitea, bideoak edo soinuak zabaltzeko edukiak gordetzea, eduki dinamikoak gaitzea (adibidez, testu edo irudi baten kargan animazioa) edo sare sozialen

bidez edukiak partekatzea. Cookie teknikoak, ezinbestekoak dira eta horregatik lehenespenez deskargatzen dira, plataforma erakusteko edo erabiltzaileak eskatutako zerbitzua emateko.

- b. Funtzionaltasun- edo pertsonalizazio-cookieak: Cookie horiei esker informazio zehatza gogora daiteke, erabiltzailea zerbitzu edo plataformara sartzean bere esperientzia eta beste erabiltzaile batzuen bereizteko balio duena, esaterako, hizkuntza, erabiltzaileak bilaketa egiten duenean erakutsi beharreko emailta-kopurua, zerbitzuaren itxura edo edukia erabiltzaileak erabiltzen duen nabigatzailearen arabera, edo zerbitzua erabiltzeko erabiltzailearen lurraldea, besteak beste. Cookie hauek onartzen ez badira, webgunearen errendimendu motela izan daiteke edo gaizki egokitutako gomendioak ager daitezke.
- c. Analisi-cookieak: Erabiltzaile-kopurua, plataforman bisitatutako atalak eta haiekin nola jarduten duten kuantifikatzeko aukera ematen dute cookie hauek, erabiltzaileek egiten duten erabileraren neurketa eta analisi estatistikoa egiteko, hobekuntzak egiteko helburuarekin, erabiltzaileek plataformaren edo zerbitzuaren erabilera-datuak aztertuta.
- d. Portaerazko publizitate-cookieak: Erabiltzaileen portaerari buruzko informazioa biltzen dute, eta haien nabigazio-ohiturak etengabe behatuz lortzen dira. Horri esker, berariazko profila garatu daiteke, publizitatea haren arabera erakusteko. Cookie horiei esker, editoreak zuzenean edo hirugarrenekin lankidetzan sartutako publizitate-espazioak eraginkortasun handiz kudea daitezke.

3. Zertarako erabiltzen dira cookieak gure Plataforman?

Cookieak funtsezkoak dira gure plataformaren funtzionamenduan. Gure cookieen helburu nagusia da zure nabigazio-esperientzia erosoagoa eta eraginkorragoa izatea. Adibidez, zure lehentasunak gogoratzeko erabiltzen dira (hizkuntza, herrialdea, etab.) nabigazioan eta hurrengo bisitetan. Gure cookieak ere erabiltzen ditugu gure zerbitzuak eta Plataforma etengabe hobetzeko, baita zure nabigazio-ohituren arabera publizitate pertsonalizatua eskaintzeko ere.

Cookieetan jasotako informazioari esker, gainera, gure plataforma hobetu dezakegu datu estatistikoei eta erabileraredueri buruzko zenbatespenen bidez (bisita-kopurua, gehien bisitatzen diren atalak, bisita-denbora, etab.), erabiltzaileek Plataformarekin nola elkarreragiten duten jakin dezakegu gure zerbitzuak hobetzeko, eta Plataforma zure banakako interesetara egokitu dezakegu, bilaketak bizkortzeko, etab.

Batzuetan, cookieak erabil ditzakegu gure plataforman hauexek erakusteko: hirugarrenen plataformak, edo beste edozein bidetatik, zure nabigazio-ohituren azterketan oinarritutako publizitatea (bisitatutako produktuak, kontsultatutako atalak, etab.).

Nolanahi ere, guk erabiltzen ditugun cookieetan ez dugu inoiz informazio sentikorrik gordetzen, hala nola pasahitzak, kreditu- edo zordunketa-txartelaren datuak, etab.

4. Nola kudea dezaket Plataforma honetako cookieen erabilera?

Gure plataforman uneoro eskuragarri dagoen Cookieen konfigurazio-panelean, Plataforma honek erabiltzen dituen Cookieei buruzko informazio guztia eskuratu ahal izango duzu, bai eta bakoitzaren asmoari, iraupenari eta kudeaketari buruzko informazioa ere (norberarena edo beste batzuen), plataformaren funtzionamendurako behar-beharrezkoak ez diren Cookieen erabileraren aktibazioa eta desaktibazioa kudeatu ahal izateko.

Cookieak desgaitzen dituzunean, cookie horiek ezabatu egingo dira arakatzailetik ahal denean, eta, edozein kasutan, cookie bati uko egin baina ezabatu ezin denean, blokeatu egiten dugu beti. Horrenbestez, ez dugu inoiz erabiliko zuk uko egindako cookierik eta haiek ezabatzen saiatuko gara (kontuan izan ezabatze-mekanismo batzuk gure kontroletik kanpo daudela, cookie horren arduraduna den hirugarrenaren mende baitaude).

Bestela, Interneten nabigatzen ari bazara, cookieen erabilera desgaitu dezakezu zure nabigatzailean, baita onartu dituzun eta gero errefusatu nahi dituzun hirugarrenen cookieei dagokienez ere. Nabigatzaile ezagunenetan nola egin azalduko dizugu:

- [Google Chrome](#)
- [Internet Explorer](#)
- [Mozilla Firefox](#)
- [Safari](#)

Cookieak ez erabiltzeko aukera edozein unetan gaitu ahal da.

Mesedez, kontuan hartu cookieen konfigurazio-panelaren kudeaketa eta cookieak errefusatzeko aukera erabiltzen duzun nabigatzaile bakoitzean gauzatu behar duzula. Beraz, cookieak gailu batean modu batean konfiguratu nahi badituzu eta zure aukera beste gailu baten antzera aplikatzea nahi baduzu, beste gailu horretan aukera bera aktibatu beharko duzu.

Urrats gehigarri gisa, zure interesetan oinarritutako publizitatea emateko hirugarrenen Cookiei dagokienez, kontuan izan behar duzu hirugarren batzuk online portaera-publizitateko programa autorregulatzaile hauetako bateko kide izan daitezkeela, eta dagozkien borondatezko bazterketako aukerak dituztela:

- Network Advertising Initiative (NAI) - <http://www.networkadvertising.org/choices/>
- Google Analytics - <https://tools.google.com/dlpage/gaoptout>
- Meta - <https://www.youronlinechoices.com/https://www.youronlinechoices.com/>

5. Nork erabiltzen du cookieetan gordetako informazioa?

Gure Plataformako cookieetan gordetako informazioa guk bakarrik erabiltzen dugu, 2. atalean “Hirugarrenen cookieak” izenekoak izan ezik. Horiek kanpoko erakundeek erabiltzen eta kudeatzen dituzte gure zerbitzuak hobetzeko eta gure Plataforman nabigatzean erabiltzaileak duen esperientzia hobetzeko zerbitzuak emateko. Informazio gehiago aurki daiteke gure Plataformako Cookieak konfiguratzeko panelean.

Hirugarrenekin eta nazioarteko datu-transferentzien mende daudenekin lankidetzan zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, Plataforman eskuragarri dagoen gure pribatutasun-politika irakurtzea gomendatzen dizugu, baita hirugarren kolaboratzaile horien plataformen bidez eskura daitezkeen pribatutasun-politikak eta konfigurazioak ere.

Hona hemen gure plataforman cookieak jartzeko aukera ematen diegun hirugarren garrantzitsuenak. Lortu informazio gehiago hirugarren horiek zure informazioa nola prozesatzen duten jakiteko:

- [Google Business-en Segurtasun-gunea](#)
- [Microsoft](#)
- [Meta](#)
- [Pinterest](#)